



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ  
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)  
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



## TARTALO. FANTASTIKOTASUNAK ARTEETAN DUEN LEKUAREN INGURUKO POSTERREN NAZIOARTEKO I. SARIKETA

Tartalo elkarteak "Fantastikotasunak Arteetan duen lekuari buruzko Posterren Nazioarteko I. Sariketa" antolatu du, John's School akademiarekin lankidetzan.

### Egin beharreko lanaren azalpena

Ekimen honen bidez planteatzen dena da fantasiako gaiak (gotikoa, zientzia fikzioa, fantasia, herri-ipuinak, errealismo magikoa...) ardatz dituen proiektu bat taxutzea, poster gisa. Hautatutako gaiaren inguruko irudiez gain, irudiak azaltzeko testu lagungarri bat ere eduki beharko du posterrak, ingelesez, egindako ikerketatik eta lanetik eratorria eta **ingelesez**.

Parte-hartzaileek beraiek erabakiko dute zer material edota formatu erabiliko duten proiekturako, egileei ikuspegi pertsonaletik abiatzeko aukera emanda, euren asmamen-gaitasunak pizteko asmoz.

Argi utzi beharra dago posterretan agertuko diren testuak jatorrizkoak izan behar dutela, sekula ez plagiatuak, ezta dena delako iturritik transkribatuak ere.

Posterrak ebaluatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Proposamenaren originaltasuna.
- Estetika eta eszenaratzea
- Emandako testuaren konplexutasuna
- Ikerketa-lana

### Parte-hartzea

Mundu osoko ikasleek har dezakete parte, betiere, sariketaren oinarrietan zehaztutako adin tarteen barruan badaude.

Parte-hartzaile batek edo, gehienez ere, parte-hartzaile bik egindakoak izan daitezke posterrak; ez da onartuko pertsona bik baino gehiagok egindako posterrik.

Garrantzitsua da azpimarratzea bakarka zein beste egile batekin batera parte-hartuta ere, poster bakarra baino ezingo dela aurkeztu.



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ  
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)  
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



### Aurkezteko modua

Hiru modu egongo dira posterren harrera egiteko:

-Eskura ematea John's School akademiaren instalazioetan (John's School, Atenas ibilbidea, 8, beheko solairua. 01002, Vitoria-Gasteiz), datu hauek adierazita: egilearen edo egileen izen-abizenak, lege-tutorearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, harremanetarako telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta helbidea.

-Posta arruntaz bidaltzea John's School akademiara (John's School, Atenas ibilbidea, 8, beheko solairua. 01002, Vitoria-Gasteiz), datu hauek adierazita: egilearen edo egileen izen-abizenak, lege-tutorearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, harremanetarako telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta helbidea.

-Posta elektronikoz bidaltzea helbide honetara: **posterscontest@tartalogasteiz.com**. Bi fitxategi bidali beharko dira: posterra PDF formatuan eta parte-hartzailearen plika digitala, egilearen edo egileen izen-abizenak, lege-tutorearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, harremanetarako telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta helbidea adierazita.

Izena emateko epea 2024ko maiatzaren 1ean amaituko da.

### Betekizun formalak

Posterreko irudiekin batera doazen testuak ingelesez idatziak izan beharko dira.

Proiektuak genero fantastikoan inspiratua egon behar du, kontuan hartuta termino horrek alderdi desberdinak barnebiltzen dituela, esaterako, zientzia fikzioa, beldurra, fantasia, errealismo magikoa eta abar luze bat.

Lehenago adierazi bezala, egilearen edo egileen hautua izango da posterra aurkezteko modua eta erabiliko diren materialak, baina kontuan hartuko dira obra ebaluatzeko. Erabiliko diren irudiak jatorrizkoak izan beharko dira, edo, hala ez bada, egile-eskubideetatik libre egon beharko dira.

Sariketaren epaimahaiak egiaztatuko du betekizun horiek betetzen diren. Sariketarik automatikoki baztertuak geratuko dira azaldutako betekizunak (testuak ingelesez izatea, genero fantastikoa jorratzea, egile-eskubiderik gabeko irudiak erabiltzea) zorrozki gordetzen ez dituzten posterrak.

### Epaimahaia

Epaimahai espezializatu batek ebaluatuko ditu onartutako obrak, lehenago azaldutako irizpideak aplikatuta.

Pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ  
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)  
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



-Jon Urkiza (John's School akademiaren zuzendaria)

-Cristina Valerio (John's School akademiaren ikasketa-burua)

-Peter Langbridge (artista grafikoa)

Epaimahaiaren erabakia egileen tutoreei jakinaraziko zaie lehenik, telefonoz edo mezu elektronikoko baten bidez, eta horren ostean iragarriko da publikoki, azaroan, "Tartalo, Fantastikotasunak Arteetan duen Lekuari buruzko II. Astea" egitasmoaren barruko ekitaldian, Gasteizen.

### Sariak

Irabazten duten egileak adinaren arabera bi kategoriatan banatuko dira, eta, diplomaz gain, diruzko sari hauek ere eskuratuko dituzte (indarrean dagoen araudietan xedatutako atxikipenak aplikatu beharko zaizkie zenbateko hauei):

-2016. eta 2013. urteen artean jaiok:

1. saria: 750 €

2. saria: 250 €

-2014. eta 2008. urteen artean jaiok:

1. saria: 750 €

2. saria: 250 €

Sariketaren emaitzak jakinarazi ostean, eta, gehienez ere, bi urteko epean, antolatzaileen esku geratuko dira irabazleen bi obrak, eta, orotzapean-liburuan argitaratzeaz gain, erakunde kolaboratzaileetan ere erreproduzitu ahalko dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 14. Artikuluan egileei erreserbatzen zaizkien eskubide besterenezinak gorabehera.

### Bermeak eta erantzukizunak

Aurrekoarekin lotuta, eta sariketan egoera anomaloak ekidite aldera, honako adierazpen hauek egiten dituzte antolatzaileek:

1. Sariketan parte hartzeak berarekin dakar oinarriak onartzea. Ondorioz, antolatzaileek ebatziko dituzte aurreikusi gabeko gorabehera guztiak, sariketaren mesedetan.
2. Euren lana sariketa honetara aurkezten duten pertsonak izango dira euren lanen edukiaren erantzuleak.
3. Posterren egile diren pertsonak euren burua behartzen dute sariketaren antolatzaileak salbu edukitzeko lanak aurkeztean egin zituzten adierazpenen



TARTALO. SEMANA DE LO FANTÁSTICO EN LAS ARTES EN VITORIA-GASTEIZ  
TARTALO. WEEK OF THE FANTASTIC IN THE ARTS IN VITORIA-GASTEIZ (SPAIN)  
TARTALO. FANTASIAZKOAREN ASTEA ARTEETAN



zehaztasun faltatik edo egiazkotasun faltatik erator litezkeen kalteei dagokienez. Lanak aurkezterakoan egindako aurretiazko adierazpen horiek indarrean jarraituko dute sariak banatzen diren arte.

4. Antolatzaileek berentzat erreserbatu dute posterrak euren dibulgazio-kanaletan, prentsa-hedabideetan edota ikus-entzunezkoetan argitaratzeko, egokitzen jotzen badute.